

MUNDU JASANGARRIAGOA, NORBERE ILETIK HASITA

Zarauzko Monte Albertia zentroan garatu duten ikerketa batek frogatu du iragazki nahiz isolatzaile natural gisa balia daitekeela pertsonen ilea. Miren Odriozola eta Maite Iturralde ikastetxeko kideek proiektuaren gaineko xehetasunak eman dituzte // 2



JABI GONZALEZ TOSTON

Herri txikietako areto futboleko lehian jokatzeko ari da Aizarnazabal

Gipuzkoako Herri Txikietako Areta Futboleko Txapelketa antolatu dute helduen mailan. Ikaztegiaren aurka neurtuko ditu indarrak Aizarnazabalek // 5



«Argi izan behar
dugu indarkeria ez
dela adierazten
dena bakarrik;
isilpekoa ere bada»

Norma Vazquez
Psikolgoa

Sortzen aholkularitzako psikologoetako bat da Norma Vazquez, eta Orioko Entzute Gunera joaten diren herritarrek entzuten ari da egunotan // 3

Azpeitia

Izarraitz skate
parkearen
urteurrenaren
harira, egitarau
oparoa
prestatu dute // 7

Monte Albertian garatu duten ikerketa proiektu batek erakutsi du iragazki nahiz isolatzaile natural gisa erabili daitekeela ilea. Don Bosco ikastetxearekin elkarlanean aritu dira.

Ilearen dohain jasangarriena

-JABI GONZALEZ TOSTON

Ikasturtea amaitzeaz da, eta, ondorioz, baita Monte Albertia Lanbide Heziketa zentroan 2022 eta 2023 urteen artean garatu duten Ilearen Ekonomia Zirkularra ikerketa proiektua ere. Hala izendatu dute helburu izan dutelako mozutako ilea bildu eta harekin bioiragazki bat sortzea burua garbitzeko konketetako hodie-tan jartzeko. Bezeroei burua garbitzean sortutako zikinkeria iragazkiak xurgatzea zen asmoa, erabilitako ura ahalik eta garbien itzultzeko ur araztegiara. Azkenean, ordea, ezin izan du filtro hori sortu proiektuan lanean aritu den taldeak. Arrazoitu dute-nez, «denbora» izan da arazoa.

Horren harira, Monte Albertiako berrikuntza departamentuko kideek azaldu dute bi direla denborari lotutako arazoak: «Batetik, ikusi dugu gure hasierako susmoa bete dela eta ileak baduela zikinkeria xurgatzeko gaitasuna. Zenbat eta denbora gehiago eman gehiago xurgatzen du, baina ile apaindegietako eguneroko martxarako ez da praktikoa. Bestetik, proiektua garatzeko ditugun epeak ere aintzat hartu behar ditugu, izan ere, mugatuak dira. Lortu ditugun emaitzak hasieratik izango bagenitu, agian izango genuke filtro horri forma emateko astia».

Ildo beretik, proiektuan parte hartu duen Errenteriako (Gipuzkoa) Don Bosco Lanbide Heziketa zentroko Irati Legorburu irakasleak adierazi du ikastetxeak direla eta «ez laborategi profesio-nalak». Azken finean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak proiektua aurrera eramateko ahalbidetu dizkien lanorduen barruan jardun dute, iaz aurkeztu zioten proposamena onartu ondoren. «Lanbide Heziketako sailburuordetzak urtero egiten

ditu ikerketa proiektuak aurkez-teko deialdiak, eta bertan sartzen da gurea. Onartzen dituzten proiektuak garatu ahal izateko denbora epeak ematen dizkiete ikastetxei, ez laguntza ekonomikoak. Hala, irakasleek eskolak ematera bideratu behar-ko lituzketen asteko lan jardunaldiko hainbat ordu ikerketarako baliatzen dituzte; astean hiru ordu, gure kasuan», azaldu du Maite Iturralde Monte Albertiako berrikuntza arloko buruak.

Proiektuaren buruzagitza Monte Albertiako izan badu ere, zentroak Don Bosco ikastetxea ere izan du bidelagun. Zehazki, ilea kimikoki aztertu dute bertan, eta Legorburuk jardun du horretan. Dena den, lanerako behar izan duen ilea Monte Albertiako helarazi dio, eta askotarikoa izan da materiala, gainera. Horretara-

35 litro ur behar dira ile luzea eta tindatua duen pertsona bati ilea garbitzeko

ko, ilea moztera zentrora joaten zaizkien bezeroen ilea ez ezik, beste negozio batzuetakoa ere bildu dute. «Bizartegietara jo dugu ile naturalena hori izan ohi delako, eta produktu organikoak erabiltzen dituen ile apaindegi batera ere bai. Azken batean, ile erabat naturala, produktu natu-ralekin tratatutakoa eta ohiko tindagai edo produktu kutsako-ragoekin tratatutakoa aztertu nahi genuen», azaldu du Miren Odriozola ikerketan parte hartu duen beste irakasleetako batek.

Sentsibilizazioa

Ilea biltzeko aitzakiarekin en-presetara egin dituzten bisitek sentsibilizazio ariketa gisa ere balio izan dutela diote Monte Al-bertiako irakasleek; izan ere, as-ko agertu dute proiektuarekiko



Bezero bati ilea garbitzeko zenbat ur behar den egiaztatzeko Monte Albertian egindako proba. UTZITAKOAK



Miren Odriozola eta Maite Iturralde. JABI GONZALEZ TOSTON

Coiffeurs Justes elkarteak eredu ile birziklapenean

Monte Albertiako irakasleek azaldu dutenez, Thierry Gras ile apaintzaile frantziarrak sortutako Coiffeurs Justes el-karteak aspalditik baliatzen du ilea estetikarekin zerikusirik ez duten zereginetarako. Ho-rregatik, inspirazio iturri dute, eta garrantzi handia ematen diote ile soberakinak biltzeari. Zentzu horretan, Miren Odriozolak aipatu du itsasoan

petrolio isuriak gertatu izan di-renean, adibidez, ilearekin be-tetako «saltxitxa» itxurako poltsa moduko batzuk erabili izan dituztela Coiffeurs Justes-ko kideek, isuriaren edapena saihesteko. «Ileak ez dio hidro-karburuei pasatzen uzten. Ku-tsatu gabeko ura soilik pasa-tzen da», azaldu du.

Aipatu elkarteak eginkizun gehiagotarako ere baliatzen du ile birziklatua: nekazaritzan, besteak beste, ongarri gisa konpostarekin nahastu ondo-ren, edo landareak babesteko uxagarri natural gisa.

interesa. «Gero eta garbiago dugu gure sektorean jasangarri-tasunaren aldeko apustua egin beharra dagoela», adierazi dute.

Ildo beretik, ikasleekin ere egin dituzte sentsibilizazio ari-ketak Ilearen Ekonomia Zirkula-rra proiektuaren barruan. Odri-ozolak azaldu du, esaterako, ile luze tindatua zuen bezero bate-kin proba egin zutela haren ilea garbitzeko zenbat ur behar zu-ten egiaztatzeko. «35 litro gasta-tu genituen», azpimarratu du.

Ikerketako kideek aitortu dute, halaber, hasieratik izan zu-tela argi filtroa lortuta ere ez zela «gutziz zirkularra» izango; izan ere, «kutsadura karga handia izango luke ura garbitu ondoren, eta hondakin kudeaketa arazoa ekarriko luke», dio Legorburuk.

Nolanahi ere, ileak iragazki nahiz isolatzaile gisa funtziona dezakeela frogatu dutela azpi-marratu du Don Boscoko irakas-leak, eta «ingurumenarentzat aurrerapausoa» dela uste du. «Material eraginkorra izan daite-keela erakutsi dugu, eta beraz, ez da beharrezkoa berriak sortzea». Hori horrela, dagoeneko egin dizkiote ileari lotutako bi ikerke-ta eskaera sailburuordetzari.

«Ezin dugu erantzun sinpleekin konformatu gertatutakoa ulertzeko»

NORMA VAZQUEZ PSIKOLOGOA

Norma Vazquez (Mexiko, 1960) Sortzen aholkularitzako psikologoetako bat da, eta azken egunetan Orioko Entzute Gunera bertaratu diren herritarrak entzuten ari da.

–AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Psikologoa zara, eta eskarmen-tu handia duzu indarkeria matxistaren biktimen bidelaguntzan.

Bai, Mexikon abiatu nuen nire ibilbide profesionala arlo horretan. Euskal Herrira iritsi aurretik, ordea, El Salvadorren bizi izan nintzen, 1992 eta 1998 urteen artean. 1992. urtean sinatu zuten bake ituna El Salvadorren, eta gerra ondorengo testuinguruan bidelaguntza ematen lan egin nuen herrialde horretan. 1998an, Bilbora iritsi nintzenean, berriaz, dolu prozesuetan eta indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeei laguntzen hasi nintzen.

Nola definituko zenuke Oriok bizi duen egoera?

Emakume bat erail dute kalean, eta horrek inpaktu handia izan du haren familian, inguruan eta herritarren artean, herrian zauri bat irekiz. Entzute Gunera etorri diren hainbat pertsonak komentatu dute, gainera, tiroa entzun zutenean atentatu bat zela pentsatu zutela. Horrekin ikusi daiteke herri honetan badagoela gertatu diren beste indarkeria batzuen oroitzapena.

Jende asko bertaratu al da Entzute Gunera?

Bai, mota askotako jendea etorri da gurekin hitz egitera: lekukoak; biktimaren eta hiltzailearen ezagunak edo lagunak, eta herrian gertatutakoak haurrengan izango duen eraginarekin kezkatuta dauden gurasoak. Izan ere, haur askori ezinezona sortzen die beraiekin gaiaz garbi ez hitz egiteak, eta ume batzuek amari galdetu diote ea aitak berari gauza bera egingo dion. Hezitzaileekin eta irakasleekin ere egin dira saioak, gaia nola bideratu jakiteko.

Adinekoen zaintzaileak ere etorri dira. Azken horietako gehienak Erdialdeko Amerikakoak dira, beren herrialdeko indarkeria girotik ihesi Euskal Herrira etorritakoak, eta hasiera ba-



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

tean beraientzat segurua zen ingurune honetan berriz segurtasun eza sentitu dutenak. **Gertatutakoaren aurrean, ohikoa al da oriotarrek izan duten erantzuna?**

Bai, gertatutakoa oso gogorra izan da, eta inpaktu handia izan du hilketa egun argiz gertatu zelako, kalean, haur parke baten

“

«Herri honetan badago gertatu diren beste indarkeria batzuen oroitzapena»

«Garrantzitsua da gaiaz hitz egitea eta ondorioak ateratzen saiatzea»

ondoan eta herritar guztien bitan. Egoeraren larritasuna ikusita, udala konturatu zen ezinbestekoa zela herriaren eskura laguntza psikologikoa jartzea. Izan ere, oso garrantzitsua da gaiaz hitz egitea eta entzuna zarela sentitzea, aurreiritzirik gabe eta epaitua izan gabe.

Badago jendea, gaiaz pentsatu arren, Entzute Gunera bertaratu ez dena. Pertsona horiek egin al dezakete lanketaren bat beren kabuz?

Bai, bertaratu direnei ere hainbat gomendio eman dizkiet zentzu horretan. Alde batetik, uste dut beharrezkoa dela normaltasuna zalantzan jartzea. Asko izan dira horrelako gauzak ez direla hemen gertatzen edo hiltzaileaz ez zutela horrelakorik espero esan dutenak. Indarkeria azaltzeko modu asko daude, ordea: zabalaparta sortuz adierazten dute, eta beste batzuek, berriz, beren izateko moduagatik, mehatxuak isilean gordetzen dituzte. Gertatutakoa ulertzeko argi izan behar dugu indarkeria ez dela adierazten dena bakarrik, isilpekoa ere badela. Horregatik, ezin dugu erantzun sinpleekin konformatu gertatutakoa ulertzeko; izan ere, fenomeno konplexua da indarkeria matxista.

Bestetik, oso garrantzitsua da gaiaz hitz egitea. Zenbait gertatutakoaz pentsatzea saihesteko joera dute, baina hori aurrerago beste modu batera azaleratu daiteke, haserrearen, gaixotasu-

nen edo minaren bidez. Horregatik, herritarrei esango nieke garrantzitsua dela gaiaz hitz egitea eta ondorioak ateratzen nahiz azalpenak bilatzen saiatzea, gertatutakoa ulertzeko. Ariketa horrek gure burua eta gorputza aireberritu eta sendatu egiten ditu, bestela ezinezona enkistatua geratzen delako.

Umeekin gaia nola jorratu behar den ere galdetu digute. Gu errealtatea kontatzearen aldekoak gara, beti ere adinaren arabera egokituta. Gertatutakoa gogorra da, baina egia da; haurrak sortzen duen fantasia, berriz, are mingarriagoa izan daiteke.

Batzuek diote gertaera lekuan ingurutik pasatzea saihesten dutela. Normala al da hori?

Bai, prozesuaren parte da. Batzuek denbora beharko dute handik pasatzeko, eta beste batzuek, aldiz, hilketa gertatu zen eremutik pasatzeko beharra sentituko dute. Pertsona bakoitzak desberdin erantzuten du egoeren aurrean. Zitzu bizian bizi den gizartean, tragedien eta heriotzaren errealizazioa galtzen joan da, baina prozesu normalak dira; zerbaitegatik daude aspal-ditik hilerriak eta dolu garaiak.

Erreparazio fasean, beste hiru saio antolatu ditu udalak datozen egunetarako

–A. LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Hilaren 22tik erreparazio fasean murgilduta dago Orio, maiatzaren 16ko hilketa matxistaren ondorioz. Alde batetik, Entzute Gunera martxan dago Salatxo aretoan, Sortzen aholkularitzaren eskutik. Orain arte zerbitzua hitzordurik gabe eskaini izan dute goizetan, baina gaurtik hitzordua eskatu beharko dela jakinarazi dute Ahalduntze Eskolako kideek. Horretarako, 623 17 85 53 zenbakira deitu behar dute herritarrek. Hitzordua hartzeko unea zehaztuko da arreta non eskainiko den.

Saioak gurasoentzat

Bestalde, eragileentzat saio gehiago ere antolatu dituzte datozen egunetarako. Lehen egunetan hezkuntza komunitateari eta 16 urtetik gorako herritarrei zuzendutako zerbitzuak aktibatuz, eta datozen asteetan, kirol elkarteentzako eta familientzako saioak egingo dituzte, Sortzen aholkularitzak gidatuta.

Lehen saioa ekainaren 7an izango da, kirol elkarteetako arduradunei eta entrenatzaileei zuzenduta. Haurrekin eta gaztetxoekin gaia nola heldu azalduko dute psikologo espezializatuek. Ekainaren 13an eta 19an, berriz, familiei zuzendutako laguntza eskainiko dute, euskaraz eta gaztelaniaz. Familien kasuan, adinez nagusiak diren kideek soilik parte hartu ahal izango dute saioetan, haurrekin eta gaztetxoekin gaia lantzeko baliabideak eskainiko baitzaizkie gurasoei.

Saioak Arraunetxan egingo dituzte, eta leku mugatuak izango direnez, ezinbestekoa izango da aurrez izena ematea. Horretarako, Orioko Udalak izen emate formularioak eskuragarri jarri ditu bere webgunean.

Ekainak

Ekainak 7, asteazkena. 18:30-20:30. Kirol elkarteentzat, euskaraz.

Ekainak 13, asteartea. 18:00-20:00. Familientzat, euskaraz.

Ekainak 19, astelehena. 18:00-20:00. Familientzat, gaztelaniaz.

Eguzki instalazioak jartzeko aldundiaren laguntza lortu du udalak

Ia 280.000 euroko dirulaguntza jasoko du erakundeak • Hiru udal estalpetan jarriko dituzte eguzki plakak, eta horietatik sortzen den energiak biztanleriaren heren bat bat hornituko luke

-ANDREA ZIPITRIA *Getaria*
Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen sailak dirulaguntzen deialdia jarri du martxan 5.000 biztanletik beherako udalerrietako udal estalpetan eguzki instalazio fotovoltaiakoak ezartzeko. Getariako Udalak jakin berri du aurkeztutako proiektua onartu egin dietela, eta, beraz, laguntza jasoko duela.

Plaka fotovoltaiakoak Sahatsa-ga kiroldegian eta Askizuko eta Meagako pilotalekueetan ezarriko dituzte. Aldundiko Ingurumen saila izango da obra guztiaz arduratuko dena, baita energia komunitateak sortzeaz nahiz dinamizatzeko eta kudeatzeko zerbitzuak kontratatzeaz ere.

Sortutako elektrizitatea herri-tarren onurarako izango da; «etxeetako fakturak gutxitzeko», azaldu du Getariako Udalak. Aldundiko teknikariek egin dituzten aurreikuspenen arabera, aurkeztutako hiru estalpe horiek herri guztiari emango liokete estaldura –bi kilometroko erradioa kontuan hartuta–, eta «nahikoa energia berriztagarri sor liteke etxe kopuru handi bat hornitzeko, biztanleriaren ia heren batera iritsiko litzatekeena».

Egitura horiek ezartzearen aurrekontua 279.892,36 eurokoa (BEZ barne) izango da guztira, eta kostu hori guztia bere gain hartuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Esku hartze horretarako, eguzki panel fotovoltaiakoak aipatu hiru udal estalpetan jartzeko, Getariako Udalak doan emango dio baimena aldundiari. Gisa horretan, aldundia izango da bost urtez instalazio horien titular nagusia, eta erakunde hori arduratuko da dena mantentzeaz eta monitorizatzear.

Behin epe hori igarotzen denean eta ondasunak eragiteari uzten diotenean, udalaren jabegora pasatuko litzateke. Horrez gain, udalak konpromisoa hartu du instalazioen ustiapena eta bertan sortzen den energia tokiko energia komunitatearen alde lagatzeko, gutxienez ere hogeitaz urtez.

Irudia Getaria



Iribarrek irabazi du Floren Memoriala

Larunbatean jokatu zituzten XI. Floren Memoriala futbito txapelketaren finalak, eta Iribar nagusitu zen ligan; 7-0 hartu zuen mendean Izar. Aurrez, beste bi partida ere jokatu zituzten. Ligako hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko norgehiagokan, Haitzek 13-5 irabazi zion Astillerori. Kopako finalean, Taxco izan zen txapel-duna, Abeta Berriren aurka 3-1 gailendu ondoren. JABI GONZALEZ TOSTON

Mugikortasuna sustatzeko, Bizikleta Eguna egingo dute etzi

-MARIA MAYA MANTEROLA
Zumaia

Bizikleta Eguna ospatuko dute larunbatean, mugikortasun ja-sangarria sustatzeko, jarduera fi-siko osasuntsua bultzatzeko eta aisialdi modu berriak ezagutze-ko helburuarekin. Bizikleta irte-erak, ginkana, zozketak eta bizi-kleta ikuskizuna izango dira, besteak beste. Parte hartzaile guztien artean, gainera, bi bizi-kleta zozkatuko dituzte.

Haur eta gaztetxoek bizikleta proban parte hartzeko, mendiko bizikleta eta kaskoa edukitzea ezinbestekoak direla ohartarazi

dute. Parte hartzaile guztiei otar-tekoa banatuko diete 12:00etan, eta 14:00etan paella egongo da bazkaltzeko. Arratsaldean, ber-riz, kimu eta infantil mailako txirrindularitza txapelketa, jola-sak eta ikuskizunak izango dira.

Arratsalde partean, 16:00eta-tik 17:30era bitartean, kaleak tra-fikoarentzat itxita egongo dira: Axular ibiltokia, Bidabeazpia ka-lea, Bonbillobekoa kalea, Bidea-rreta kalea eta Jadarre auzunea. Dena den, 16:45etik 17:00etara bitartean, bidea irekiko dute ber-tako bizilagunen ibilgailuak sar-tu eta atera daitezen.

Zahartzaroari Omenaldia ospatuko dute igandean

GETARIA // Tonpe Guraso Elkar-tea eta Lagunek Zahartzaroari Omenaldia egingo diote igandean honetan. Aurten bost herritar hauek jasoko dute aitortza: Igna-cio Maria Snalek, Jacinto Isas-tik, Segunda Arrutik, Casimira Isastik eta Trinidad Otamendik. Egun osoko egitaratua prestatu dute, eta Zumaiaiko El Txoko de Mikel Bermejo jatetxean izango dute bazkaria.

Lore eta Landareen Azoka egingo dute larunbatean

ZARAUTZ // Lore eta Landareen 13. Azoka egingo dute larunbat honetan. Zarauzko Zigordia ka-lean. 10:00etatik 14:30era bitar-tean, bertako eta kanpoko sal-tzaileak izango dira lore eta lan-dare aukera zabala eskaintzen. Era berean, landareen mundua-rekin harreman estua duten beste zenbait artisau produktu erosteko abagunea izango dute herritarrek.

Jexuxmai Lopetegi zuzenean ariko da bihar Modelo aretoan

ZARAUTZ // Ez da horren sinplea da Jexuxmai Lopetegi musikari zarautzarraren azken diskoa, eta bihar zuzenean aurkeztuko du, 20:00etan hasita, Modelo areto-an. Emanaldi berezia izango da, hemezortzi musikari baino gehiago bilduko dituelako ohol-tza gainean, baina ez horregatik bakarrik. Izan ere, bolada batez emango duen azken kontzertua izango da.

Zozketak

HITZA *hide* en **TXOKOA**

20

Urolako Komunikazio Taldeak [UKT]

GUKA produktu sorta osoa: Toalla, poltsa, palak eta botila

Hedabide guztietako bazkideen artean

[Zozketa zenbakia: 20]



29

SASKIBALOI

GUUK GIPUZKOA BASKET - LEYMA CORUÑA

Ekainak 2, ostirala 20:00etan eta galduz gero bigarren partida ekainak 4. igandea 12:00etan. Ilunbe estadioan [Zozketa zenbakia: 29]

Sarrera bikoitz bat partidu bakoitzeko.



VS



Zozketan parte hartzeko deitu: 943-56 01 64 zenbakira edo **webguneko ZOZKETAK** atalean izena eman. (Tpoa: ekainak 1, 12:00ak arte). Seridunon izenak ekainaren 2an, ostirala, argitaratuko dira.



Ikaztegieta (arrosaz) eta Aizarnazabalgo (marroiz) taldeak, Ikaztegieta jokatuako partidan. UTZITAKOA

Gipuzkoako Herri Txikieta Areto Futboleko Txapelketa antolatu dute aurreneko helduen mailan. Aizarnazabalen jokatu dute azken neurketa, hilaren 16an.

Areto futbola, herri txikieta

—MAIALEN ETXANIZ

U rteak dira Gipuzkoako Herri Txikieta Areto Futbol Elkartea herri txikieta gaztetxoaren arteko areto futbol txapelketa antolatzen hasi zenetik. Denbora luze haurren arteko partidak antolatzen aritu ostean, etena egin zuten «arrazoi desberdinak tarteko». Aurtan, txapelketa berrartzea erabaki dute antolatzaileek, eta lehen aldiz antolatu dute sariketa helduen mailan. Hasiera batean liga jokatzeko zuten sustatzaileen asmoa, baina gizonetakoetan bi taldek bakarrik eman zuten izena, eta ezin izan zuten liga martxan jarri. Horrenbestez, zuzenean finala jokatzeko erabaki dute. Hain zuzen, Aizarnazabalek eta Ikaztegieta jokatu dute Areto Futboleko Herri Txikieta Gipuzkoako Txapelketa lehen finala.

Maiatzaren 27an jokatu zuten finaleko joaneko partida Ikaztegieta (Gipuzkoa), eta etxeko

Kuturru taldeak hartu zuen abantaila, partida 5-3 irabazita. Itzulerako neurketa ekainaren 16an jokatu dute Aizarnazabalen, eta hitzordurako gogoz daude aizarnazabaldarrak. Unai Alberdi (Aizarnazabal, 1991) da taldekideetako bat, eta hark kontatu duenez, «giro polita» sortu da txapelketaren bueltan. Alberdiren arabera, duela urte batzuk bazen areto futboleko talde bat Aizarnazabalen, eta hain aritutako jokalariek batzuk eta beste hainbat gazte osatu dute aurtan Aizarnazabalgo taldea. «Txapelketaren aitzakian belaunaldi desberdinetako herritarrek elkartu gara. Duela urte batzuk bazen areto futbol taldea herrian, eta orduko arduraduna etorri zitzaigun txapelketa parte hartzeko proposamenarekin. Areto futbol taldean aritzen ginen kide batzuk animatu ginen, baina beste batzuk ez, eta, ondorioz, gazteengana jo genuen. Haiek animatu ziren, eta orain 17 urte 30 urtera arteko herritarrek osatzen dugu taldea», kontatu

du Alberdik. Aurrez elkarrekin ibili gabekoak direnez, hainbat entrenamendu egin dituzte, eta horietan «saltsa polita» sortzen dela azaldu du: «Herri txikieta denok ezagutzen dugu elkar, eta ederkid moldatzen gara elkarrekin».

Aizarnazabalgoek ezin izan zuten maiatzaren 27ko joaneko partida irabazi, baina emaitzari buelta emateko asmoa eta gogoia dutela adierazi du Alberdik: «Ez genuen nahi finala joanekoan erabakitzerik, eta zentzu horretan, gustura gaude; izan ere, posible da emaitzari buelta ematea. Oraindik urruti dago ekainaren 16a, baina oso gogotsu gaude». Egun horretan kirola eta festa uztartzea nahi dute aizarnazabaldarrek, eta oraindik egitarau zehatzik ez duten arren, festa giroak ez dela faltako aurreratu du Alberdik. «Ikaztegieta giro ederra egon zen: jan edanerako aukera, musika, txaranga... Guk ere antzeko zerbait prestatzeko asmoa dugu, partidaren aitzakian festa ere sortzeko. Oraindik ez dakigu noiz

izango den partida, baina gure asmoa da trikopotea eta horrelako ekintzak antolatzea partidaren aurretik, herritarrek ere giroan sartzeko».

Txapelketa indartzea xede

Jon Leunda (Beizama, 1970) da Gipuzkoako Herri Txikieta Areto Futboleko Txapelketaren antolatzaileetako bat, eta hark azaldu duenez, liga martxan jarri ez izanaren «penaz» gelditu diren arren, «txapelketari pixkanaka indarra ematea» da sustatzaileen asmoa.

Antolatzaileak jakitun dira «zaila» dela herri txikieta areto futboleko aritzeko taldeak osatzeko, baina ez dute amore emateko asmorik. «Lehen gaztetxoak zirenak orain helduak dira, eta horiek berriro txapelketa parte hartzea eta jarraipena ematea nahi dugu. Egia da ez dela erraza, batzuk ikasten ari direlako, beste batzuk lanean dabiltzalako... baina ahaleginak egingo ditugu txapelketari eusteko. Aurtan aurreneko harria jartzeko da asmoa, aurrera begira

txapelketari eta ligari indarra emateko», adierazi du Leunda. Beste erronketako bat da emakumeen txapelketa martxan jartzea. Aurtan egin dute ahalegina, baina ez da emakumezkoen talderik animatu. «Gaztetxo txapelketa zenbait talde mistoak izaten ziren, baina helduen mailan bestelakoa da egoera. Hori dela eta, emakumezkoen sariketa antolatzen saiatu gara, eta jarri gara harremanetan hainbat herritako klubekin, baina ez dugu inor animatzerik lortu. Beraz, dugu beste erronketako bat da emakumeen parte hartzea sustatzea», adierazi du beizamarrak.

Ikaztegieta bizi da Leunda, eta Kuturru taldearen entrenatzailea ere bada. Haren arabera, «maila oneko» partida izan zen maiatzaren 27koa, eta Aizarnazabalgoa ere hala izango dela aurreikusten dute. «Maila eta giro ederra izango da, ziur».

**Iragarki
laburra**

Salgai

Azpeitia. Damaso Azkue auzoko taberna bat salgai dago. Interesatuek telefono zenbaki honetara deitu behar dute: 943-15 12 26.



Puntuka
Intza Trula

Nahi eta ezin

Urteak aurrera doazen moduan, gazteek emantzipatzeko dituzten zailtasunek gora-ko joeran jarraitzen dute etengabe. Gazteen Euskal Behatokiak 2022ko abenduaren argitaratutako Etxebizitza Emantzipazioaren Kostua Euskadin ikerketaren arabera, Gipuzkoako gazteen soldatek %97,1 igo beharko lukete merkatu librean bizileku bat erosi ahal izateko (zertxobait gutxiago babestutako etxebizitzetarako). Horra hor gaur egun gazteek gurasoen etxetik alde egiteko ezintasunaren arrazoiak; soldata eta bizitokiak kostuak, alegia.

Gurasoen etxetik alde egitekoa gazte ororen bizitzako momentu garrantzitsua da, etapa berri baten hasiera dela esan dezakegu, baina azken bolada honetan etxe bat erosteko ahalmen hori pribilegio



Etxebizitza batzuk, Azpeitian. AITZIBER ARZALLUS

hutsa bihurtu da. 2021a izan zen azken hamarkadan etxebizitza gehien saldu diren urtea, baina horiek ez dira gazteen esku geratu, egoera eroso batean bizi diren familien eskuetan baizik. Nekez erosteko gaur egun gazte batek etxebizitza bat, familiartekoen laguntzarekin ez bada behintzat.

Bizileku bat eskuratzeko prozesuan sartzean, hau da, hipotekan sartzean, ez da hileko soldata garbiaren %30 baino gehiago bideratu behar hileko kuota hori ordaintzera, baina azken urteotako zifrekin urria da hori bete dezakeen gazte kopurua. Niri behintzat ez zaizkit kontuak

ateratzen, eta datuek argi uzten dute kanpoko laguntza batekin ez bada, hori lortzea oso zaila dela. Horrez gainera, etxebizitza libre bat bereganatzeko bete beharreko irizpideak gero eta zorrotzagoak dira; antzinatasa enpleguan, kontratu mugagabea, hipoteka hilerdo ordaintzeko ahalmena erakusten duten diru sarrierak, eta beste hainbat aspektu hartzen dira kontuan prozesu horretan.

Etxebizitza libre bat erosteko ahalmenik ez duten herritarrentzat bideratzen dituzte babestutakoak, baina kasu horretan ere, beste arazo garbi batekin egiten du topo gazteak; etxebizitza publikoa-

ren eskaintzaren eskasiarekin. Lehenago aipatutako ikerketaren emaitzek mahai-gaineratutako datuen arabera, bizileku librean batez besteko prezioa 227.312 eurokoa da, eta pisu babestuenak, aldiz, 162.783 eurokoa. Kontua da, ordea, ez dagoen lekutik ezin dela atera. Izan ere, 2021. urtean eskrituratutako etxeen %4,9 baino ez ziren babestutakoak izan. Beraz, etxebizitza babestu bat erosteko ahalmena izanda ere, ez dago horretarako ia aukerarik.

Aitzitik, bizitegi bat erosteko pribilegio hori ez duenak alokatzeko apustua egiten du askotan. Hala eta guztiz ere, alokairura joaten diren herritarrek konpainian egiten dute gehienetan; bikotekidearekin edo lagun batekin. Izan ere, alokairuko prezioak baxuagoak izan arren, bakarrik emantzipatzeko garestia izaten jarraitzen du aukera horrek oraindik askorentzat.

Azken urteetan etxebizitzaren salmentek gora egin badute ere, argi dago hori ez dela izan gazteen emantzipazioaren edota jatorrizko etxea uztearen ondorioz. Azken urteetan saldu diren etxebizitzak gehienak jadanik etxe bat jabetzan zuten eta pribilegio egoera batean bizi diren familien esku geratu dira. Hori gutxi ez, eta prezioek goraka jarraitzen dute merkaturaren, eta ez dirudi babes ofizialeko bizilekuen eskaintzak gora egingo duenik. Beraz, ikusitakoak ikusita, etxetik alde egiteko asmoa duten gazteek, hor konpon!

Gutunak



Magia sortzen denean!

Nerabezaroan eta gaztaroko lehen aldiari kirolak duen garrantzia osasun arloko profesionalak ez dute zalantzan jartzen, kirola modu osasuntsuan egiten bada behintzat.

Buru osasuna guztion ahotan dabilen honetan, zer esanik ez; kirola taldean egiteak badu garrantzia. Kirola praktikatzeko, antsietateak, autoestimua, harremanak eta taldean aritzeak ardura eskatzen dute, arau eta norbere buruaren zaintza; entrenamendu orduak, partidak...

Emakumeen eta nesken kasuan, adituok badakigu 16 eta 20 urte bitartean gehienek kirola uzten dutela. Kasu askotan, adin horretan gogoia beste arlo batzuetan egoten delako (ikasketak eta abar), baina beste askotan, emakumeen kirolari eman zaion garrantzi eskasaga-

tik ere bai. Gainera, neskek, mutilekin alderatuz, aukera gutxiago dituzte orokorrean: entrenamendu ordu gutxiago, entrenatzaile falta, talde falta, motibazio falta... Azken finean, hori dena landuko duen begirada baten falta!

Gezurra dirudi garai hauetan lerro hauek idazten egotea, baina urte gutxi dira emakumeen kirola sustatzearren aldeko lanak egiten ari direla.

Gaurkoan, emakumeek, neskek eta futbolaz aritu nahiko nuke. Oraingo lerro hauek eskerak emateko idazten ditut, bihotz-bihotzez. Lagun Onak-eko zuzendaritzako kideek emakumezkoen futbolaren alde apustua egitea erabaki zutenetik hona, herriari eta neskei ekarri dizkien onurak eskertzeko, hain zuen ere. Txikitatit futbol eskolan daudenak gero eta gehiago dira, neska txikiei futbolarekiko ilusioa piztuz.

Joan zen asteburuan, nesken talde xume bezain indartsu batek finala jokatu zuen, 15 eta 19 urte bitarteko nesken taldeak -taldea osatzen lanak ibili zituzten-. Hasierak ez ziren teknikoki oso onak izan, baina entrena-

tzaileen eta koordinatzaileen lanaren -jokalari bakoitzarenarekin batera- nahiz gogo eta ilusioaren ondorioz, pausoz pauso lantaldea indartzea, osatzea eta jokoa hobetzea lortu dute; hori baino garrantzitsuagoa dena, kirolarekiko harremana sendotzea.

Beraien arteko harreman zoragarriak norbanako bakoitzak haztea ekarri du.

Izugarría futbol talde horren garapena irailetik hona, eta eskertzekoa da zuei, koordinatzaileei, entrenatzaileei, nesken futbol eskoletako arduradunei eta neskei.

Emakumei begirada jarri eta bat-batean magia sortzen baita!

Zorionak neskek, gure txapel-dunak zarete!

-Ana Elozegi. Azpeitia.

HITZAk irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —espazioak barne— baino luzeago izan behar, eta **HITZAk** mozteko eskubidea du. Helbide elektroniko honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: urolakosta@ukt.eus.

Gaurtik itxita izango da Iñaki Azpiazu eta Esklaben arteko bidea

-JULENE FRANTZESENA

Azpeitia

Gaurtik aurrera, denboraldi batez, ibilgailuentzat itxita izango da Esklabetako eraikinaren eta Iñaki Azpiazu kalearen arteko errepidea. Esklabetan eraikitzen ari diren alokairu sozialeko etxebizitzak -48 etxebizitza egingo dituzte han- obrak tarteko itxiko dute bidea; izan ere, udalak jakinarazi duenez, eraikinaren au-

rrealdea egokituko dute datozen asteetan.

Momentuz, ibilgailuentzat soilik itxiko dute bidea; dena dela, aurrerago oinezkoentzat ere hala egin beharko dutela nabarmendu dute. Aurreikuspenen arabera, eta Azpeitiko Udalak jakinarazi duenez, bi hilabeteren bueltan iraungo dute eraikinaren aurreko aldea berri-tzeko lanek.



Iñaki Azpiazu kalea eta Esklabetako eraikina. AZPEITIKO UDALA

Egitarau oparoa prestatu dute Izarraitz skate parkearen lehen urteurrenerako

YK Ridersek eta Arauntza Ridersek antolatu dute egitaraua, Azpeitiko Udalaren laguntzarekin • Euskal Herriko I. Skate Txapelketa jokatu dute ekainaren 11n

MAIALEN ETXANIZ

Ekainean urtebete da Izarraitz skate parkea martxan jarri zene-tik, eta hori ospatzeko, egitarau oparoa prestatu dute YK Ridersek eta Arauntza Ridersek, Azpeitiko Udalak lagunduta. Azken urtean bizi-bizirik egon da skate parkea, eta urtemuga festa giroan ospatzeko askotariko ekintzak antolatu dituzte ekainaren 9, 10 eta 11rako.

Ostiralez, ekainaren 9an, hasiko dituzte antolatutako ekintzak. Egun horretan, 16:00etatik 20:00etara, librean aritzeko aukera izango dute zaleek, *YK Riders freesession* saioa antolatu baitute. Dena den, ez da kirolerako aukera bakarrik egongo; 17:30ean lagomago ikuskizuna eskainiko du, eta 21:00etan kontzertuak izango dira. Hain zuzen, Azkoitiko CheckBoyz hip hop taldea eta Azpeitiko Hit Bound reggae taldea arituko dira gaua musikaz girotzen.

Ekainaren 10ean jarraituko dute egitarauarekin. Goizean zehar hainbat ikastaro eskainiko dituzte, 09:00etatik aurrera. Alde batetik, kirol ikastaroak izango dira skate parkean, Ipar surf eta skate eskolak eskainita; saioak 09:00etatik 14:00etara egingo dituzte. Era berean, 10:00etan hasita, grafiti eta kamisetak margotzen ikasteko tailerrak egingo dituzte. Kamisetak tindatzeko ikastaroan parte hartu nahi dutenek etxetik eraman beharko



Izarraitz skate parkea, izazko ekainean. MAIALEN ETXANIZ

dute kamiseta. Gero, 14:30ean, bazkaria egingo dute Esklaben atarian, eta bazkalostean, kontzertu akustikoa emango dute Meryk eta Kustok. Bazkarirako txartelak salgai daude Da, Hainpe eta Dean tabernetan. Landunek 15 euro ordaindu beharko dute txartela, eta langabeek 10 euro.

16:00etatik aurrera, Jam Sessionak girotuko du parkea, eta gaua borobiltzeko, parrillada eta kontzertuak antolatu dituzte. 20:00etan hasiko da parrillada, eta 21:00etan kontzertuak. Azpeitiko Leherkaitz eta Zumaia Hoben taldeek eskainiko dituzte zuzenekoak. Egun osoan zehar, YK Riders taldearen denda eta

taberna izango dira skate parkearen ondoko belardian, eta musikarik ere ez da faltako.

Euskal Herriko txapelketa

Ekainaren 11rako berrikuntza bat ere izango da. Hain zuzen ere, Euskal Herriko I. Skate Txapelketa egingo dute Azpeitian, eta bertan parte hartu nahi dute-

Egitaraua

EKAINAK 9, OSTIRALA

16:00-20:00. *YK Riders freesession*, librean aritzeko aukera.
17:30. Iago magoren ikuskizuna.
21:00. Kontzertuak: CheckBoyz eta Hit Bound.

EKAINAK 10, LARUNBATA

09:00-14:00. Skate ikastaroak.
10:00. Grafiti eta kamisetak margotzen ikasteko tailerrak.
14:30. Bazkaria.
Bazkalostean, kontzertu akustikoa: Mery eta Kusto.
16:00. Jam Sessiona.
20:00. Parrillada.
21:00. Kontzertuak: Leherkaitz eta Hoben.

EKAINAK 11, IGANDEA

Egun osoan, Euskal Herriko I. Skate Txapelketa.

nek izena eman dezakete dagoneko.

Bi mailatan jokatu dute sarriketa: batetik, street eta bowl modalitatean, 10 eta 12 urtez azpikoena; bestetik, street modalitatean, 16 urtez azpikoen txapelketa eta sariketa libre.

Open eta 16 urtez azpikoen sariketan parte hartu nahi dutenek federatuen lizentzia izan beharko dute, eta Espainiako txapelketarako sarbidea izango dute. Aldiz, 12 eta 10 urtez azpikoetan parte hartzeko Euskadiko eskola lizentzia beharko da, eta ez dute izango Espainiako lehiarako sarbiderik.

Iganeda da txapelketan izena emateko azken eguna. Parte hartzeko 20 euro ordaindu behar dira, eta mezu bat bidali skateboard@fvpatinaje.eus helbidera. Ordaintzeko kontu korronte zenbakia honako hau da: ES29 2080 3638 2430 40000 7739.

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain
merkeago
TXIKIA (82mm x 64mm): 120 € / *Harpidedunentzat: 60 €
HANDIA (124mm x 64mm): 178 € / *Harpidedunentzat: 86 €
ESKERTZA (38mm x 64mm): 60 € / *Harpidedunentzat: 30 €

*Harpidedunak HITZAko bulegotik pasa
Bez barne

UROLA KOSTAKO HITZA GUKA

Osteguna, 2023ko ekainaren 1a

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN. 1697-8587
Zuzendaria: Iñintza Elustondo.
Helbidea: Azpeitia, Soreasu 1, 20730, 943-81 38 41.
Zarautz: Araba kalea 27, 20800, 943-89 00 17.
Posta elektronikoa: urolakosta@uktu.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus.
Zuzendariordea: Aritz Mutiozabal.
Publizitate: Urola Kosta: 673 69 90 95.
Zarautz: 607 61 52 39. zarautz@uktu.eus.
Orio-Aia: 607 49 87 23. orio@uktu.eus.
Zumaia: 685 71 20 90. zumaia@uktu.eus.
Getaria: 607 49 87 23. getaria@uktu.eus.
Azpeitia: 607 49 87 25. azpeitia@uktu.eus.
Azkoitia: 607 49 87 27. azkoitia@uktu.eus.
Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama: 607 49 87 27.
zestoa@uktu.eus.



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Hitza-ko bezeroen
arreta zerbitzua
(zalantzak
argitzeko,
harpidedun
egiteko):
943-30 30 35



Temperatura
V 21°
A 13°

Mareak

Itsasgora	3:07-15:31
Metroak	3:57-3:67
Itsasbehera	09:18-21:33
Metroak	1:02-1:01

zarauzkohitza.eus/ / urolakosta.hitza.eus

Agenda

Gaur, osteguna

Jaiak

Azpeitia. Sanjuandegiko jaiak: 19:00etan, Kantu Jira eta pintxo poteoa; 21:00etan, mus txapelketa izen ematea; 22:00etan, mus txapelketa, Ongi Etorri erretegia, eta 22:00etan, iluntze musikatua, Edu Zardoyarekin eta Sheldons taldearekin.

Hitzaldia

Orio. Elikadura klimaterio garaian hitzaldia Libe Garmendia nutrizionistaren eskutik, 18:00etan, Kultur Etxean.

Zinema

Zumaia. Zineforuma: *Holy Spider* film, 19:00etan, Aita Mari aretoan.

Bihar, ostirala

Bakarrizketa

Zarautz. Tutum Platz bakarriketa Algarapola egitasmoaren barruan, 22:30ean, Arrano tabernan.

Kontzertua

Zarautz. Jexuxmai Lopetegiren kontzertua, 20:00etan, Modelo aretoan.

Sari banaketa

Zestoa. Udaberriko III. Argazki Rallyko sari banaketa ekitaldia, 19:00etan, Arroabeko eskola zaharreko lokalean.

Jaiak

Azpeitia. Sanjuandegiko jaiak, Gazte Eguna. 15:00etan, kafea eta auzo lana; 19:00etan, Mantangoriren ongietorria; 19:05ean, kalejira buruhandiekin, erraldoiekin eta triktilariekin; 20:00etan, batukada; 21:00etan, gazte afaria; 23:00etan, areto dantzak; 23:00etan, Manitu, Neallta Fola eta Laket. Gainera, herriko DJak txosnan: Matx, Meriton, P4ul, Enesound, Jos_U eta Kanpax.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Hike Eizan! bertsopaper lehiaketako iazko irabazleak. ANARTZ IZAGIRRE

Azkoitiko II. Hike Eizan! bertsopaper lehiaketak baditu irabazleak

Zarautzen, Basarri bertsopaper sarian lanak aurkezteko epea zabalduta, hilaren 21era bitartean • Garaileak 1.530 euroko saria jasoko du Bertso Astearen barruan

- ANDONI ELDUAIEN - ARITZ MUTIOZABAL

Azkoitiko II. Hike Eizan! bertsopaper lehiaketak baditu saridunak. Hango udalak joan den astelehenean jakinarazi zuen epaimahaiaren azken erabakia. Gazteen mailan, hamabost lan aurkeztu dituzte bertsopaper lehiaketara, eta helduen mailan, berriz, 11 lan.

18 urtez azpikoetan, lehenengo saria hutsik geratu da, eta bigarren Aratz Iturbe 11 urteko azkoitiarrak irabazi du, *Nire arrebari* bertso sortarengatik. Helduetan, 18 urtetik gorakoetan, alegia, lehenengo saria Izaro Zinkutxaga azpeitiarrarentzat suertatu da *Gure bizitza hunan* bertso sortarengatik.

Azkoitia saria ere banatzen

dute antolatzaileek, eta gazteen kategorian, Garazi Larrañagak eta Laia Sodupe jakoko dute elkarrekin idatzitako *Gaur goizen jaiki naun* izeneko bertso sortarengatik. Helduen kategorian, Azkoitia saria Naia Arizabalaga

Ekainaren 22an banatuko dituzte II. Hike Eizan! lehiaketaren sariak

azkoitiarrak irabazi du, *Lurra-
ren estalkiak* lanarengatik. Gazteetan, sei bertso ziren aurkeztu beharrekoak, eta 18 urtetik gorakoetan, zortzi bertso.

Epaimahaia Hike Eizan! lantaldeko eta Erniarrait bertsozale elkarte bina kidek osatu dute. Bertsoen kalitateaz gain, hitanoaren erabilera zuzena egiten den ala ez baloratu dute epaimahakideek, lehiaketaren hel-

buru nagusia hika, eta, bereziki, noka sustatzea baita.

II. Hike Eizan! bertsopaper lehiaketako sari banaketa ekitaldia ekainaren 22an egingo dute Elkargunean, 19:00etan hasita. Egun horretan bertan saioa da III. Hike Eizan! bertso saioa ere. Aurretik, oholtzan izango dira bertsoetan Andoni Egaña, Eli Pagola iazko bertsopaper lehiaketako sariduna, Jesus Mari Irazu eta Nerea Elustondo.

Zarautzen, abian

Euskara eta bertsogintza sustatzeko asmoz, bestalde, Zarauzko Udalak dagoeneko abian jarri du Basarri bertsopaper saria. Ibilbide eta sona handiko lehiaketa da Zarauzkoa, eta aurtengoak jada 39. edizioa du; antolatzaileek eskuragarri jarri dituzte lehiaketan parte hartzeko oinarriak eta izen emate orria.

Ohi bezala, sariketara aurkez-

ten den lan bakoitzak zortzi bertso izan behar ditu, gutxienez ere. Gaia libreia izango da, eta bertso sorta bakoitzaren doinua izenburuaren ondoan zehaztu beharko da. Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi lan bidali ahal izango ditu, eta horiek originalak, argitaratu gabeak eta beste inolako lehiaketetan saritu gabeak izan beharko dute ezinbestean.

Lanak bidaltzeko epea ekainaren 21ean bukatuko da, eta posta elektronikoz aurkeztu beharko dira, kultura@zarautz.eus helbide elektronikora mezua bidaltuta. Garaileak 1.530 euro jasoko ditu, eta haren izena uztailearen 4an jakinaraziko dute; sari banaketa ekitaldia ere uztailean izango da, Bertso Astearen barruan. Aurtengo lehiaketaren epaimahaia Andoni Egaña, Nahikari Gabilondok eta Uxue Alkortak osatuko dute.